

# Asisko gutuna

2019ko urria.

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

132. zenbakia

Urriak gure frantziskotar espiritualtasuna bizitzera gonbidatzen gaitu. San Frantziskoren jaia ospatuz hasi eta Asisko Espirituarekin bat eginik amaitu hilabetea. Egiaz frantziskotar hilabetea.

San Frantziskok eta Santa Klarak lagun gaitzatela Jainkoarekin eta elkarrekin bat eginik bizitzen.

## Gogoetarako gaia

### *Eta elkarte bizitza ondo ez dabilenean?*

Guztiak nahi izan dugu familia bizitza, adiskidetasun-taldea, elkarte edo eliz-komunitatea harmonian bizi izatea. Beti saiatu izan gara eguneratzen Apostoluen Eginen liburuan dakarren “elkartuta bizi ziren eta dena komunean zuten...” hura. Guztiok ezagutzen ditugu amets hori lortzeko sortzen zaizkigun era guztietako zailtasunak, bai pertsonalki eta bai taldean. Guztiok gure onena jarri dugu jokoan oztopoak gainditzeko eta bizikidetasuna, erlazioak birgidatzeko eta horrela bai komunitatea, bai familia, berriro egia bilakatzeko.

Hala ere, behin baino gehiagotan gertatzen da, saiatu arren eta beharrezkoak ziren baliabideak jarri arren, itxarondako fruituak ez ikustea. Iruditu ohi zaigu bizikidetasuna ez dela posible gure artean gure familiak, bikote bizitzak edo komunitateko bizitzak eskatuko lukeen maila txikienean ere. Orduan azaleratzen dira elkarte bizitzaren ezintasuneko mamuak, ezgaitasun pertsonalak edo taldearenak proposatutako hura bizi ahal izateko,

elkartearen alde egindako apustua zalantzan jartzen duten ezintasunak...

Beti ez da posible izango, baina beharbada elkarte bizitza birkokatzeko ordua iritsi da. Orain, ez da soilik borondate onaren kontua (errespetua, barkamena, kolaborazioa...), ezta ere bizikidetasunerako trebetasunena (asertibitatea, autoezaguera, sentimenduak adierazten jakitea...). Hori guztia beharrezko izango dugu, baina sakonean birkokatu beharko dena da non dagoen oinarritua nire elkarte, nire senidetasuna, nire familia... Begiratu beharko dut zerk sortu duen eta zerk eusten dion. Edo nor den elkarte bizitzaren abentura honetara deitu gaituena.

Hau ez da soluzioa, baina senidetasuneko estadio berrian jartzen gaitu. Eta agian guztiak perspektiba berria har dezake. Ez da guregandik jaioa izango, nahiz eta gu pertsonalki inoiz ez bezala inplikatu; alderantziz baizik, bokazioa izango da, dei bat, nora garamatzen ez dakigun bide berri bat; baina jakingo dugu Bera dela pertsona ezberdinoi deitzen diguna.

## Bibliako pasartea: 1 Kor 12,12-14.27

Gorputzak, bat izan arren, atal asko ditu, baina atal guztiek, asko izan arren, gorputz bat osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz jentil, esklabo nahiz libre, Espiritu bat beraz izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko, eta guztioi Espiritu bat bera isuri zaigu. Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. Zuek Kristoren gorputz zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Alde batetik, bere debozio biziak eta karitate beroak errealtate jainkotiarretarantz jasotzen bazuten, bestetik, bere ontasun txeratsuak izaki guztiak besarka gozoan estutzera eramaten zuen, berez eta graziaz anaia eta arreba zituenak. Bada bere bihotzaren samurtasunak izaki guztien anaia sentitzea eragin bazion, ez da harritzekoa Kristoren maitasunak oraindik eta gehiago senidetzea hura Sortzai-learen irudiaz markatuta eta Kreatzailearen odolaz berrerosita dauden haiekin.

Ezin zuen onartu Kristoren laguna zenik baldin eta ez bazen saiatzen hark berrerosi zituen haiei laguntzen. Eta azpimarratzen zuen ez dela ezer lehenetsi behar lagun hurkoaren salbazioaz gain, eta horretarako froga gisa aipatzen zuen Jainkoaren Semea guztiengatik hil zela gurutzeko enborrean esekita... Eta esan ohi zuen: nahiz eta aingeruen eta gizakien hizkuntzetan mintzatu, karitaterik niregan ez badut eta ez badiot lagun hurkoari bertutezko etsenplurik ematen, ezer gutxi balioko die beste eta ezer ere ez neuri.

## Otoitza

Jesu Kristo Jauna,  
 batasun-zutabea  
 eta senidetasunaren erregea.  
 Bidal iezaguzu goizero  
 zure espirituaren airea.  
 Apurtu banantze-harresiak  
 norberekoikeriak altxatuak,  
 handihuste eta harrokeriak.  
 Urrundu gure etxetik  
 desadostasunak sorrarazten dituzten  
 bekaizkeriak.  
 Libra gaitzazu ezer ez egitetik.  
 Baretu gure kolpeko bulkadak  
 eta bete gaitzazu soseguz.  
 Sor itzazu gure barnean  
 korrante sentibera eta beroak  
 elkar barka dezagun  
 eta elkar uler dezagun,

elkarri indar eman diezaiogun eta ospa dezagun  
 ama beraren seme-alaba bezala.

Aldendu gure bideetatik  
 lehiak eta higuinak  
 apurtu elkar ikusi ezinak  
 izan gaitezen batzuk besteekin  
 irekiak eta leialak,  
 zintzoak eta egiazaleak.

Haz dadila konfiantza  
 zuhaitz hostotsu bezala  
 bere itzalpean guztiok zorionsu senti gaitezen.  
 Eta horrela munduaren aurrean izango gara  
 adierazpen ikusgarri eta profetikoa  
 Zu, o Jesus,  
 bizirik zaudela gure artean  
 agertzen duena. Amen.

## Gutuneko azken hitzak

“Kohete bizkorretan hurbiltzen gara zerura eta ezin gure eskuak giza senidetasunean hurbildu.”  
 (P. Neruda)


### 2019ko urriko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urriko erreferentzia guztiak:

1 Lk 9, 51-56	8 Lk 10, 38-42	15 Mt 11,25-30	22 Lk 12, 35-38	29 Lk 13, 18-21
2 Mt 18, 1-5.10	9 Lk 11, 1-4	16 Lk 11,42-46	23 Lk 12,39-48	30 Lk 13,22-30
3 Lk 10, 1-12	10 Lk 11,5-13	17 Lk 11,471-54	24 Lk 12,49-53	31 Lk 13, 31-35
4 Mt 11, 25-30	11 Lk 11,15-26	18 Lk 10, 1-9	25 Lk 12,54-59	
5 Mt 7, 7-11	12 Lk 11, 27-28	19 Lk 12, 8-12	26 Lk 13,1-9	
6 Lk 17, 5-10	13 Lk 17,11-19	20 Lk 18, 1-8	27 Lk 18,9-14	
7 Lk 10, 25-37	14 Lk 11, 29-32	21 Lk 12, 13-21	28 Lk 6, 12-19	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Urrian elkarrekin  
 ospatuko dugun otoi-  
 tza 24ean izango da  
 19:30tan